

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Eugenio Simon Nafarroako Kontseiluaren lehendakaritza karguz jabetu da

*Barcina Lehendakaria izan da bilkuraren buru, eta hark kontsulta-organoak gizarteari ematen dion laguntza azpimarratu du*

Martes, 26 de febrero de 2013

[Nafarroako Kontseiluaren](#) lehendakari berri Eugenio Simón Acosta Foru Komunitateko kontsulta-organo gorenaren karguz jabetu da gaur Nafarroako Errege Artxibo Nagusian, Yolanda Barcina Lehendakaria bilkuraren buru zela.

Simon gehiengo absolutuz lehendakari hautatu dute [Nafarroako Kontseiluko kideek](#). Kide horiek sei urterako beren karguz jabetu ziren Nafarroako Jauregian iragan asteazkenean egin zen ekitaldian.

Barcina Lehendakariak bere [agerraldian](#) nabarmendu du Nafarroako Kontseiluak bere jarduerarekin foru-arauen kalitateari laguntzen diola, "hau da, gure gizartearen kalitateari laguntza ematen diola". "Pieza baliotsua zarete Nafarroako bobeda instituzionalean" eta "aitortua izan behar den lana burutzen duzue, guztion onurako egindako lana independentzia, neutraltasun eta erantzukizuna gordez", erantsi du.

Nafarroako Kontseiluaren lehendakari berriak, ideia bera azpimarratuz, azaldu du organoak erabakitzeko ahalmen juridikorik ez badu ere, "haren irizpide profesionalak organo erabakitzaitelen borondatea sortzeko prozesuan era aktiboan laguntzen duela". Haien iritzien balioa – adierazi du bere [agerraldian](#)– honako honetan oinarritzen da: "Kontseiluaren inpartzialtasunean, haren arrazoiaren indar intelektualean eta iritzi juridikoen koherentzian".



Barcina Lehendakaria, María Asunción Erice (ezkerrean), Eugenio Simon (eskuinean) eta Nafarroako Kontseiluko gainerako kideen alboan. (eskuinean).

[Eugenio Simon](#) Valverde del Fresnon (Cáceres) jaio zen 1951n. Boloniako Unibertsitatean (Italia) Zuzenbidean doktoratu zen eta Zuzenbidean lizentziatuta dago Salamancako Unibertsitatean. 1985. urtetik Nafarroako

Unibertsitateko Finantza eta Zerga Zuzenbideko katedraduna da eta Nafarroako Kontseiluaren kide 2000. urtean sortu zenetik.

Kontseiluaren lehendakari-karguan, organo horren ordezkaritza-lanak egikarrituko ditu; bilkuren deialdia, lehendakaritza eta zuzendaritza; gaien banaketa bertako kideen artean; txostenak hautatzea eta agintzea kanpoko adituei, beharrezkoa denean; eta organoaren gastu-espedienteak baimentzea.

Ekitaldian izan dira egungo Nafarroako Kontseiluaren kideak eta kargua uzten duten bi kontseilariak (Enrique Rubio eta Julio Muerza), bai eta Foru Komunitateko agintari gorenak ere. Haien artean, Nafarroako Parlamentuko lehendakari Alberto Catalan; eta Nafarroako Gobernuako ordezkari Carmen Alba.

Foru Gobernuaren aldetik, bertan izan dira lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoechea; bigarren lehendakariorde eta Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Juan Luis Sanchez de Muniain kontseilaria; Lehendakaritza, Justizia, eta Barne kontseilari Javier Morras eta Osasun kontseilari Marta Vera.

### **María Asunción Erice, Kontseiluaren idazkaria**

Gogoratu behar da Nafarroako Kontseilua bost gizona eta bi emakumezko osatuta geratu zela. Eugenio Simonekin batera, organo horren kide dira: Alfonso Zuazu Moneo, Alfredo Irujo Andueza, José Iruretagoyena Aldaz, José Antonio Razquin Lizarraga, María Ángeles Egusquiza Balmaseda eta María Asunción Erice Echegaray, eta azken horrek idazkari-lana egingo du kontsulta-organoko kideek kargu horretarako hautatu ondoren.

[Maria Asuncion Erice](#) Iruñean jaio zen 1957an, eta Zuzenbidean lizentziatuta dago Zaragozako Unibertsitatean. 2000. urtean Nafarroako Gobernuak Nafarroako Administrazio Auzitegiko Hirugarren Saileko lehendakari izendatu zuen, eta gaur arte kargu hori bete du.

Kontseiluko idazkari-lanetan, organo horren mende dauden langileen buruzagitza izatea egokituko zaio; bilkuretarako beharrezko dokumentazioa aztertu eta prestatzea; bilkuren aktak egitea; eta bertako ziurtagiri nahiz komunikazioen organo izatea.

Nafarroako Kontseilua Foru Komunitateko kontsulta-organoren gorenena da, eta honako ardura hau du: Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta foru-araudiaren lanketako gainerako ordenamendu juridikoa jarraitzea eta betearaztea. Haren txostenak ez dira lotesleak, legeak kontrakoa xedatzen ez badu behintzat, eta aukera edo egokitasuneko balorazioak ezin ditu izan.

### **Lehen argazkiaren oina (ezkerretik eskuinera):**

María Ángeles Igusquiza, Alfredo Irujo, María Asunción Erice, Yolanda Barcina, Eugenio Simón, José



Eugenio Simon Nafarroako Kontseiluaren lehendakari karguari zin egiten.